

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Musukoen edukiontzia aurrera eraman ahal izateko bazkide eta hornitzaileen beharra dugu. Funtsezko aliantzei dagokionez, Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Leioako Udalarekin kontratu bat egingo genuke edukiontzien kudeaketan lagun diezaguten.

HORNITZAILEAK

Gure zerbitzua garatu ahal izateko hurrengo baliabideak beharko genituzke:

1. **Musukoak:** merkatu-ikerketa egin ondoren, musuko kirurjikoek onarpen handiena jasoko luketela jakin dugu. Gainera, adinaren arabera desberdintzea eskatu ziguten. Hori dela eta, neurri desberdinetako musuko kirurjikoak ekoizten dituen enpresa bat beharko genuke.

-*Human DIMS Biotechnology CO. enpresak* musuko kirurjikoak ekoizten ditu neurrien arabera.

https://disishengwu.en.alibaba.com/product/62583571426-822125204/Byd_tapabocas_ff_p2_cubrebocas.html?spm=a2700.icbuShop.41413.7.6a831bedTv9C4H


- Prezioa: \$0.20/unit- gehienez unitate bakoitzeko 0.20€ ordainduko genituzke, hori baita Espainiako Estatuak ezarri zuen gehienezko prezioa.
- Gutxieneko kantitatea: 1000
- Materiala: spandex, kotoia
- Hornidura-epea: 3 egun



2. **Edukiontziak:** Pfand sisteman oinarritutako edukiontziak ekoizten dituen enpresa bat beharko genuke. *Tomra* enpresak birziklapenarekin zerikusia duen produktuak ekoizten ditu. Pfand sisteman oinarritutako edukiontzien ekoizle nagusia da. T-9 izeneko edukiontziak sortzen ditu, edukiontzien instalazioaren zerbitzua eskaintzen du eta teknikariak bidaltzen ditu matxurak konpontzeko.

<https://www.tomra.com/es-es/collection/reverse-vending/reverse-vending-machines/fr-ont-end/t-9>





Musukoen edukiontzien proiektuak funtziona dezan, behar beharrezkoak dira hornitzaileak; haiei gabe ezinezkoa izango litzateke musukorik eskaintzea.

BAZKIDEAK

Proiektua kudeatzen eta aurrera eramaten 3 bazkide izango gara:

- Lidia Álvarez
- Uxue Ibarra
- Olatz Elexpuru

3 bazkide garenez, **Kooperatiba** bat sortzea erabaki dugu, jarduera ekonomikoak burutzeko elkarrekiko laguntza oinarri hartuko baitugu.